



Otto Habsburgokoa

IKUSI MAKUSI...

Argazki eta postal zaharrak noizkoak diren jakiteko batzuetan atezuan ibiltzen gara. Horregatik prestatu dugu zerrenda heterogeneo hau, Lekeitiok hirigintza-bilakaeran izan dituen aldaketetan oinarritua batik bat.¹

Orduko politikari, sekretario, abade eta pertsona “esan-guratsuak” ezagutzeak ere lagunduko digu. Baita itsasontzien matrikulak ere.

Badoakizue ba, zehatzegia izan nahi ez duen zerrenda, ez baita kontua azkenengo obrarik txikiena ere azaltzea.

1868 Udaletxeari solairu bat gehitu/Erregina Isabel II.a Lekeition

1879 Itsasalde alboko etxea eraiki (planoak ordukoak)

1883 Erregina Isabel berriro Lekeition

1884 Elizako zaharberitze obrak amaitu eta inauguratu Plaza ingurua/ Pascual Abaroa etorbidea eraikitzen hasia

1885 Mendietatarren ontziola

1887 Atea auzoko Zabalecua etxean hotela eraiki Garavillatarrek (planoak ordukoak)

1888 Arranegi Zabaleko San Pedroren arku bota/Pascual Abaroaren burdinazko iturriak ipini eta garbitegi bi eraiki/Portuko obrak hasi

¹ Kontuan izan gehienetan guk eskaera eta baimenen berri baino ez dugula izaten eta baimenak eskatu, planoak aurkeztu, obrak hasi eta amaitu artean denbora igarotzen zela. Eta ez hori bakarrik, beste batzuetan eskatzen zena azkenean ez zen egiten.

1890 Mataderia berria (planoak ordukoak) Pascual Abaroa etorbidean

1891 Portuko mataderia zaharra bota/Jose Maria Abaroak Piedade auzoko Abaroa jauregiko planoak aurkeztu

1892 Adan de Yarzarrek Arranegiko etxea berriztu/Zezen plaza eraiki (asmoa behintzat)

1893 Plaza zabaldu (nahi)/Benito Aranberrik etxea altxatu nahi eta Boniifacio Ocamicak etxea eta fabrika handitu Basaldea inguruan/Juan Luis Abaroak talako txaleteko planoak aurkeztu/Uribarren jauregia erre azaroan

1894 Uribarren jauregia berreraiki/Portuko obrak amaitzeaz, talan obrak (Talako etxetxua botata ordurako)

1895 Andres Mendieta Isuntzako etxea eraikitzen hasi

1896 Plazako frontoia bota (behintzat erabakia hartu)/Escola beheera eraman alondiga berria eta solairu bat altxatu eraikinari/Plazan obrak (egiteko asmoa erakutsi)/Probalekua Atean

1897 Plazako obrak (kioskoa, harresia, eskailerak...)

1898 Nautikako eraikinari solairu bat gehitu Konpainiako auzoan

1900 Plazako alondiga zaharra merkatu bihurtu (planoak ordukoak)

1902 Frontoi berria Pascual Abaroa etorbidean/Karraspio-ko bidea egiteko asmoa (1920an burutu zen)

1903 Olatu-horma edo ronpeolasean obrak/Kofradiako kabana erre, berria altxatu

1904 Portuko *Pepe Roque (Damasoneko denda)* etxea berrizteko planoak

1905 Salbamendu-kaseta inauguratu (1905-9-17)

1906 Plazako kioskoa lekuz aldatu/Marianistak Lekeitiora

1907 Autobusak ekarri Lekeitiora, garajea zabaldu nahi

1908 Arancibiatarren plazako etxeko bigarren solairuan balkoi bi bat egin (Uribarren 4)

1909 Udaletxe alboko etxean obrak (udalkideen argazkiek normalean etxe hori erakutsi atzeko aldean)

1912 Solanotarren Mendexako etxea

1913 Mendietatarren Isuntzako etxea erre (ez ontziola albo-koa), berria altxatu nahi/Elizatzeta 7 eta 8 bota eta Elizarentzat eraikin berria altxatu (eskaera ordukoa)

1914 Bainu-etxea zabaldu nahi Jose Antonio Eigurenek (eraikinari gainera solairu bat gehitu nahi)/ Plazako kioskoari estalkia jarri/Ateako probalekua eta harrizko eserleku luzeak kendu (nahi, behintzat)

1916 Pablo Beitiak etxea eraiki Abaroa etorbidean (eskaera eta planoak ordukoak)/ Brouard & comp. autobusen enpre-

sak garajea zabaldu Eskolapean/ Domingo Mendietari baimena eman Isuntzako hondartzan etxe berri bat eraikitzeke

1919 Mendietatarren hondartzako etxea oraindik erdizka altxatuta (solairu bat bakarrik)/ Likona dorreko bodegetan erreforma/ Likona dorre alboko etxea bota eta berria altxatu (planoak ordukoak)/ Becoechea etxearen zaharberitzea, egungo Abaroa kaleko Arostegitarren etxea

1920 Goraburu inguruko batzoki berriaren planoak, (inauguratu hurrengo urtean)/Garavillatarren kabana berria Atea auzoan/Tomas Gezuragak kabana zabaldu nahi Pascual Abaroa etorbidean/Hondartzako etxea eraiki (100 urte bete dituela eta bota behar dute)/Garavillatarrek Atea auzoko Arteita dorrea zaharberitzeko baimena eskatu/Leon Telleria Atea auzoan etxea eraikitzen ari da

1921 Leon Ocamicak baimena eskatu bere fabrikari *Banco de Bilbao: Agencia* kartela jartzeko

1922 Zubietako jauregirako sarrera berria Kristo Portal inguruan/Gamarra 3ko 1. solairuan balkoia miradore bihurtu/Zita eta familia Lekeition/Moiletan eskailera bikoitza egiteko eskaera/Andres Gamindek Basaldean etxea altxatzeko baimena eskatu

1923 Aranberitarrek Pascual Abaroa etorbidean balkoiak miradore bihurtu nahi Leon Ocamicaren antzean/ Magdalena Atxabalek Zumatzeta auzoan etxea altxatzeko baimena eskatu

1925 Domingo Mendietak karabineroentzat etxea eraikitzeke baimena eskatu

1926 Ambrosio Zatarainek Zumatzeta auzoan etxea eraiki (nahi, behintzat)/ Antonio Madariagak Santa Katalina auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu/Mertzedarioak Lekeitiora

1927 Enrique de la Torrek Zumatzeta auzoan zuen garaje gainean etxea eraikitzeke baimena eskatu/ Zacarias Uskolak Santa Katalina auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu/ Gregorio Odiaga Pascual Abaroa etorbidean etxea eraikitzen ari da

1929rako karabineroen San Juan Talakoko eraikina botata

1932 Jose Manuel Arostegik Santa Katalina auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu/Telesforo Gabiolak Santa Katalina auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu

1934 Julian Munitisek Zumatzeta auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu/Francisca Alberdi, Garavillaren alargunak, Pascual Abaroa etorbidean salazoi lantegia eraikitzeke baimena eskatu/Moila zati bat hondoratu/Pascual Abaroaren plazako monumentua

c. 1934 Portuko tinglaur estali

1936 Emilio Valdesek Santa Katalina auzoan etxea eraikitzeke baimena eskatu



Rosario, Lequeitio F 2160 L3 (1927an egina)

ITSASONTZIEN MATRIKULAK

1900-1905 San Juan BI-1-686/Lequeitio BI-1-1034

1906-1910 San Rafael BI-1-1049/Miren Begoña 1335

1911-15 Clotilde BI-1-1349/Joven Carmen BI-1-1561

1916-20 Joven Hilario BI-1-1562/Santa Barbara BI-1-1724

1921-25 Benedicta BI-1-1729/M^a Milagrosa BI-1-2106

1926-30 Maria y Cruz BI-1-2115/Berbiz BI-1-2238

1931-36 San Pedro BI-2239/Aita Guria BI-1-2386



Kalbario mendi, L¹⁰⁰ F¹⁰ 1916 L^{TA} 3^a (1922an egina)

Eta orain irakurritakoari probetxua aterako diogu. Horretarako M. Garavillaren argazki zoragarri bat aukeratu dugu. Noiz atera zen jakiteko lehenengo denbora-tarte zabalak erabiliko ditugu eta gero estutzen joango gara tarteak. Goazen ba:

1 Erraz ikusten da ez dela portu zaharra, berria dela, beraz 1891 ostekoa da.

2 Ez da hain erraz ikusten baina Likona dorre alboko eraikin berria oraindik altxatu barik dago eta dorreko arku zorrotzak ikusten dira, beraz 1920 aurrekoa da. 29 urteko tartea

3 Juan Luis Abaroaren talako txaleta ikusten da, beraz 1893 ostekoa da. Urte berean Torregrosa-Uribarren jauregia erre (berria altxatuko zen) 27 urteko tartea

4 Jose Antonio Eigurenen Pascual Abaroa etorbideko bainuetxea 1914koa da (planoak behintzat) eta ez da ikusten. 21 urteko tartea

5 Enrique Aldamizen Pascual Abaroa etorbideko errementeria 1908koa da (baimena maiatzaren 25ekoa) eta ez da ikusten. 15 urteko tartea

6 Udaletxeari atxikitako eraikin hori alondiga zaharra zegoen lekuan 1900ekoa da. 8 urteko tartea


7 Pascual Abaroa etorbidean ikusten dugun frontoi berria 1902koa da. 6 urteko tartea

8 Talako bigarren olatu-horma 1904koa da. 5 urteko tartea

9 Portuko salbamendu-kaseta 1905ekoa da. 3 urteko tartea

10 BINGO! Uribarren 4ko bigarren solairuan obran dabilta. Bi balkoi batu eta luze bat egin nahi dute. 1908-3-23 udal aktan eskaera eta baimena agertu.

Patria aldizkariaren artikuluan (ikus 121 or.) ikus ditzakezue erreforma aurreko balkoi horiek.



1905



1908



POLITIKARI etab.

Alkateak

1883-86 Jose Chopitea

1886-87 Juan Pedro Acordagoicoechea

1887-93 Jose Felix Eguilior

1894-95 Hipolito Zabaleta

1895-99 Jose Felix Eguilior

1899-1901 Juan Pedro Acordagoicoechea

1902 Juan Arce

1903 Roman Echevarrieta

1904-09 Bruno Larrazabal

1909-11 Juan Zabala

1912-13 Manuel Mendia

1914-15 Manuel Garavilla

1916-17 Juan Zabala

1918-20 Isaac Orue

1920-22 Manuel Mendia

1922-23 Bruno Larrazabal

1923-26 Jose Maria Amusatategui

1926-30 Leon Ocamica

1930 Pablo Beitia

1930-31 Carlos García Cortés

1931-34 Mariano Adan de Yarza

1935-36 Alejandro Eizaguirre

1936 Mariano Adan de Yarza



Juan Arce



Roman Echevarrieta



Bruno Larrazabal



Juan Zabala



Manuel Mendia, 1912



Manuel Garavilla



Jose Mª Amusatategi



Leon Ocamica

Idazkariak

1880-97 Nazario Rotaache

1897-1908 Pablo Gil

1908-1928 José María Bracho

1928-29 Juan Pérez Cuesta

1929 Antonio Martínez Díaz



José María Bracho



Mariano Adan de Yarza



Antonio Martínez